

Leioako Udalak gaurtik maiatzak 11ra luzatuko den "Liburujatun" I. Irakurketa Lehiaketa deitu du

Leioako Udaleko Kultura Sailak, Udal Liburutegiaren eta Euskera Sailaren laguntzarekin, "Liburujatun" I. Irakurketa Lehiaketa deitu du 16 urte baino gehiagoko pertsonentzat. Gaur hasi eta datorren maiatzaren 11a arte burutuko da lehiaketa hau, Leioako Udaleko iturriek prentsa-ohar batean azaldu dutenez. Parte hartzeko, lehiaketa zabalik egongo den 20 egunetan liburu bat irakurri beharko da bai euskaraz zein gaztelaniaz, eta antolatzaileek jarritako bost galderei erantzun beharko zaie. Bi pertsonentzako afari bat izango da azken saria.

Irakurri beharreko liburua Pablo Tusset idazlearen "Lo mejor que le puede pasar a una cruasan" da eta erantzun beharreko bost galdera hauek dira: "zer da kruasan bati gertatu lekiokkeen gauzarik onena?"; "nortzuk dira SP eta MP"; "zer da eta nola prestatzen da Vichoff bat?"; "zer esan nahi du egileak ' gure betileetan bizi diren akaroak ' dioenean?"; eta "sartuko zinateke zu ere ' La Fortaleza ' -n?".